

2011-07-26ko UDALBATZA ARRUNTA

Iruran, bi mila eta hamaikagarren urteko uztailaren hogeita seian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar arrunta egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal taldekoak: Gorka Murua Macuso, Noelia Lataburu Ortiz, Tomás Echeverría Sarasola, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, eta Ainara Mugica Iruretagoyena.

-EAJ/PNV udal taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Josu Yurrita Loiteguik.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaidekopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2011-06-11; 2011-06-28).- 2011ko ekainaren 11ko, eta 2011ko ekainaren 28ko ezohiko saioen akten zirriborroak aurkeztu dira.

Javier Izaguirre zinegotziak dio 2011ko ekainaren 28ko aktaren 8. puntuan akats bat dagoela eta zuzentzea nahi duela. "Javier Izaguirre Gomez zinegotziak kritikatu du proposamena, idatziz ez delako aurkeztu, berez ustez, horrela egin behar delako" esaldiaren orde bestea honek agertu behar du: "Javier Izaguirre Gomez zinegotziak kritikatu du ez dela proposamena idatziz aurkeztu eta horrela egin behar dela".

Eta aho batez onartu dira aipatutako aktak, lehen azpimarratu den zuzenketarekin.

BIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA SINATZEA UDAL FRONTOIA ERABILTZEKO.- 2011ko uztailaren 19ko Kultura Batzorde Informatiboak proposamen hau onartu du:

“Kultura batzordeak, 2011ko uztailaren 19an eginiko bileran gai hau aztertu zuen:

3. Kiroletako gaiak:

a) Aurreko ikasturtean bezala, Irurako Ikastolak ondorengoa eskatu dio Udalari 2011-2012 ikasturtean erabiltzeko:

-Pilota-lekua, haurren kirol jarduera fisikoa, atsedena eta Eskola Kirola jardueretarako, eranskinean adierazitako orduetan.

Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du: eskatutako lokala uztea; horretarako, aurreko ikasturtean izenpetu zen hitzarmena egokitu eta izenpetu beharko da. Baina ikastolakoei ohartarazi behar zaie momentu jakinetan udalak herritarren interes orokorrerako frontoia edo ludoteka beharko balu, ikastolak aldatu beharko dituela aurreikusitako jardueren ordutegiak.”

Eta udalbatzak aho batez hau erabaki du:

Lehenengoa.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkateari ahalmena ematea udalaren izenean eta haren ordeztatzeko.

Erabaki hau erabatekoa da administrazio bidean.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA SINATZEA LUDOTEKAKO UDAL LOKALA ERABILTZEKO.-

2011ko uztailaren 19ko Kultura Batzorde Informatiboak proposamen hau onartu du:

“Kultura batzordeak, 2011ko uztailaren 19an eginiko bileran gai hau aztertu zuen:

3. Kiroletako gaiak:

a) Aurreko ikasturtean bezala, Irurako Ikastolak ondorengoa eskatu dio Udalari 2011-2012 ikasturtean erabiltzeko:

-Haur-txokoa, eskola-orduen aurreko zaintza zerbitzurako 07:30etik 9:00etara.

Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du: eskatutako lokala uztea; horretarako, aurreko ikasturtean izenpetu zen hitzarmena egokitu eta izenpetu beharko da. Baina ikastolakoei ohartarazi behar zaie, momentu jakinetan udalak herritarren interes

orokorrerako frontoia edo ludoteka beharko balu, ikastolak aldatu beharko dituela aurreikusitako jardueren ordutegiak.”

Eta udalbatzak aho batez hau erabaki du:

Lehenengoa.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkateari ahalmena ematea udalaren izenean eta haren ordeztuz sinatzeko.

Erabaki hau erabatekoa da administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

UDALA ETA GALTZAUNDIREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2011ko uztailaren 19ko Kultura Batzorde Informatiboak proposamen hau onartu du:

Kultura batzordeak, 2011ko uztailaren 19an eginiko bileran gai hau aztertu zuen:

2. Euskarako gaiak.

- Udalak Galtzaundi Euskara Taldearekin sinatu duen hitzarmena aztertu du batzordeak. Udalak 2011ko ekainaren 28an sinatu zuen hitzarmena, baina idazkariak adierazi du Udalbatzak onartu gabeko hitzarmena dela.
- Kontua da, aurreko korporazioarekin adostutako kontua zela eta, teknikariaren nahaste baten ondorioz, Osoko bilkurari proposamenik egin gabe sinatu dela hitzarmena.
- Idazkariak aholkatu du hurrengo Osoko bilkuran onar dezatela proposatzea.

Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

a) Udalbatzak onartzea Galtzaundi Euskara taldearekin hitzarmena sinatzea.”

Eta udalbatzak aho batez hau erabaki du:

Lehenengoa.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkateari ahalmena ematea udalaren izenean eta haren ordeztuz sinatzeko.

Erabaki hau erabatekoa da administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.

Gai hauek eztabaidatu dira:

a) Javier Gomez Izaguirre zinegotziak adierazi du ez duela jaso ez udalbatzaren deialdia ezta dokumentazioa ere.

Idazkariak erantzun dio akats administratibo bat izango zela eta hurrengo aldirako konponduko dela.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA